

Mondragon Unibertsitatearen Oñatiko campusak “marketin mugikorrari” buruzko doako jardunaldia hartuko du astelehen honetan.

2014/01/19

Urtarrilaren 20an, astelehenean, marketin mugikorrari lotutako esperientzia praktikoan berri eman eta horren inguruko kontzeptuak azaltzeko jardunaldia izango da Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultateak Oñatin duen campusean. 'Mobile marketing' izenez ere ezaguna den diziplina horrek gailu mugikorren bidez egindako marketin-ekintzak diseinatu eta ezartzera bideratutako jarduera guztiak biltzen ditu. Izan ere, telefonía mugikorraren sektoreko garapen teknologikoari (smartphoneak) eta beste gailu batzuekin (tabletak) eta hedabideekin (Internet) integratzeari esker, marketin mugikorra funtsezko elementua bihurtu da erakunde horietan.

Mondragon Unibertsitateak antolatu du jardunaldia, ikasle nahiz irakasleei mugikorraren marketinaren gaur egungo egoeraren eta joera berrien ikuspegi zabala eskaintzeko asmoz. Jardunaldia guztiz irekia da eta, beraz, bertaratzeko interesa duten pertsonak migarzabal@mondragon.edu helbidean nahiz 943718009 telefono-zenbakian jar daitezke harremanetan.

Hitzaldia 14:15ean hasiko da Mikel Mesonero Mondragon Unibertsitatearen Enpresa Zientzien Fakultateko koordinatzaile akademikoaren eskutik. Hain zuzen, berak egingo du ekitaldiaren aurkezpena. Horren ondoren etorriko da inaugurazio-hitzaldia, 'Mobile marketinga, errealitatea' izenekoa, RocaSavatella enpresaren eskutik.

16:00etan azalduko dira lehen kasu praktikoak. Gauden lekutik hurbil produktu merkeak eskaintzeko asmoz, saltokien eskaintza eta geolokalizazioa konbinatzen dituen doako aplikazioa sortu duen Boletus enpresako marketin saileko arduradun Nerea Apraiz izango da lehen hizlaria.

Ondoren, Urtzi Jaureguibeitia eta Isabel Liébanak hitz egingo dute. Idiateca enpresako product manager eta Komunikazio, Marketin eta Gizarte-hedabideen arduraduna dira, hurrenez hurren. Idiatecak honela definitzen du bere burua: "Ideia-fabrika bat da. Teknologia-alorreko profesionalak merkaturatzeko proiektu berritzaileak sortu, diseinatu eta garatzen dugun lekua".

Kasu praktikoei buruzko lehen zatia amaitzeko, Bature Mobile Solutions enpresako CEOak hitz egingo du. Atsedenaldiaren ondoren, esperientzia praktikoei helduko zaie atzera ere. Eroski markaren arduradun Eduardo Saiz izango da lehen hizlaria, eta Jaione Martinezek eta Maria Amutxastegik jardungo dute ondoren. Amutxastegi eta Martinez aplikazio mugikorrak garatzen dituen Skura Mobile enpresaren sortzaileak dira, biak ala biak Mondragon Unibertsitateko ikasle ohiak.

Ekitaldiari amaiera emateko -18:30ean-, Dani Reguera Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko irakasle eta ikertzaileak "Mobile commercea, smartphonetik erosiz eta salduz" izeneko hitzaldia eskainiko du.

